

INSA TOULOUSE

Institut National des Sciences Appliquées de Toulouse (INSA), Ingeniaritza Eskola Publikoa da, Goi Mailako Hezkuntza eta Ikerketa Ministeritzaren agintaritzapean eta Ingeniari tituluak emateko CTI - Ingeniari Tituluen Batzordeak egiaztatuta dagoena. 5 urteko titulazioa da.

1963 urtean sortua, Eskola hau **INSA Taldearen** partaide da, dauden beste 5 instituziorekin batera; Lyon, Rennes, Rouen, Strasbourg eta Toulousen. Beste bi bazkide Eskola sartu dira "Toulouseko unibertsitatearen" taldera: Bourgeseko ENSI eta Limogeseko ENSCI.

INSA Toulouse, Ikerketa eta **Goi Mailako Hezkuntza Gunearen (PRES)** kide sortzailea da, Toulouseko beste 5 instituziorekin batera.

Eskola honek bi eginkizun nagusi ditu: alde batetik, ingeniariak trebatzea hasierako eta etengabeko prestakuntza bidez, eta bestetik, ikerketa jarduerak garatzea.

INSA Toulousek **8 espezialitate** ezberdineta ingeniariak hezitzen ditu. Irakaskuntza hau, azken zientzia aurrerapenetan oinarritzen da, ikerketa laborategietako lanez ustiatuz, industria talde handiengatik babestuta, esaterako, aeronautikarako material berrien sektorean, ingurumenaren babeserako teknologia berri eta nanoobjektuak bultzatuz.



INFORMAZIOA ETA HARREMANA

INSA TOULOUSE

135, avenue de Ranguel, 31077 Toulouse cedex 4 | France
Olivier Mazet: +33 (0)5 61 55 93 41 | Géraldine Casaux-Ginestet: +33 (0)5 61 55 99 06
Mail: iberinsa@insa-toulouse.fr

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Loramendi, 4. Apartado 23, 20500 Arrasate | Mondragón | España
Eduarne Agirre (International Relations): (+34) 943 73 96 21
Mail: eagirre@Mondragon.edu | int.eng@Mondragon.edu

UNIBERSITAT JAUME I

12071 Castelló de la Plana | España
Jose Gamez: (+34) 964 72 81 94 | Fax: +34 964 72 81 70
Mail: jose.gamez@uji.es



Informazio gehiago INSA Toulousen web orrian, zure mobilarekin bateragarria den QR kodeekin.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



Mondragon Unibertsitatea kooperatiba unibertsitatea da, Mondragon taldearen partaide, bere ingurune, gizarte eta denborarekin konprometitua dago. Mondragon taldearekin batera, gizarte eraldatzen laguntzeko konpromisoa du. Gaur egun, **3400 graduko** ikasle ditu eta **22 titulazio** irakasten dira. Postgradu mailako ikasketetan berriz, 15 master eta 8 ikastaro aditu irakasten dira. Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri nagusienetarikoa bat lan munduarekin etengabeko harremanen estua da, zeinak ahalbideratzen gaituen, gure hezkuntza eskaintza, enpresa eta erakundearen beharretara egokitzea. Gure irakaskuntza ereduaren ezaugarriak hauek dira: gaitasunetan oinarritutako prestakuntza, ikasle eta irakasleen arteko zuzeneko harremana, talde-lana, ebaluazio jarraia, enpresa eta erakundeetan formakuntza praktikoa, berrikuntza, ekintzailetasuna eta nazioarteko formakuntza.

Gainera, Mondragon Unibertsitateak 2000 urtean, **"Mendeberri Proiektua"** izeneko hezkuntza eredu berria jarri zuen abian. Hizkuntza eredu eleanitza da, euskara, gaztelania eta ingelesa, ondorengo eagarrietan oinarritzen delarik: Formazio prozesuan parte hartzen duten konpetentzia eta balioen garapena, metodologia didaktikoen ezaugarri praktikoa eta informazio-komunikazioaren teknologia berrien erabilera intentsiboa.

JAUME I – CASTELLON

Castelloneko Jaume I Unibertsitatea, **unibertsitate publikoa** da, 1991 urtean sortua eta **10.000 ikasle** inguru dituelarik. Bolumen honek, ikasleei arreta berezia eskaintzea ahalbideratzen du eta ez dago inongo masifikazio arazorik. Instalazio modernoa duen campus bakarrean izanik, ikasleen eta hauen bizitza unibertsitarioaren integrazioa errazten du.

UJIK, berriak, malguak eta lehiakorren diren programa eta ikasketa planak eskaintzen ditu, ikaslearen autonomia profesionala eta pertsonala bermatzen dituelarik, eta hauen lan mundurako integrazioa aukerak zabalduz.



Facebook Twitter LinkedIn Viadeo YouTube



Conception graphique: www.lamatiererosse.com • Crédits photos: INSA de Toulouse / www.baptiste-hamoulin.com / www.arnaudspani.com / Mondragon Unibertsitatea / Universitat Jaume I • Octobre 2013

IBERINSA INSA TOULOUSE-EKO PROGRAMA BERRIA

IBERINSA

Frantzia-Espainiar titulazio bikoitzeko nazioarteko ikasketa programa



IBERINSA IKASKETA PROGRAMA

Iberinsa, frantzia-espainiar programa elebidun eta kultura anitzekoa da. Programa honi esker, ikasleek diploma bikoitza lortzeko aukera dute, etorkizunean Frantziar edo Espainiar herrialde hiztunetan lan egiteko. 6 urteko iraupena duen programa zehatz hau, INSA TOULOUSE-eko Ingeniari tituluarekin eta dagokion Espainiar unibertsitateko Master tituluaren lorpenarekin amaituko litzateke. Espainiar estatuan bi unibertsitate bazkide ditugu: **Universidad Jaume I de Castellon** (Valentziar erkidegoan) eta **Mondragon Unibertsitatea** (Euskal Herrian).

Programa hau aukera paregabea da baldin eta:

- Diploma bikoitza izatea nahi izanez gero, Espainian bata eta Frantzian bestea
- Ikasketa baldintza ezberdinak nahi izanez gero
- Beste kultura eta prestakuntza sistema batera egokitu nahi izanez gero
- Erronkak atsegin badituzu
- Esperientzia berri eta interesgarri bat bizi nahi izanez gero



POGRAMAREN ANTOLAKETA

Sei urteko iraupena du, ikasketak Frantzia eta Espainia artean banaturik.

Urteak	INSA	Espainia
1	X	
2		X*
3	X	
4	X	
5		X
6		X

*Mondragon Unibertsitatean euskaraz egiteko urtea

Irtenebidetako alternatibo bat aurreikusia dago Mondragon Unibertsitatean ikasi nahi, baina euskeraz ez dakiten ikasleentzat.

Urteak	INSA	Espainia
1	X	
2	X	
3		MU
4	X	
5 Lehen seihilekoa	X	
5 Bigarren seihilekoa		MU
6		MU

DATU AIPAGARRIAK

2740 ikasle daude eta hauetatik **2294** ingeniari itza ikasleak dira

- **500 tituludun** inguru urtero
- **12.000 tituludun** baino gehiago
- **8 espezialitate**
- **8 laborategi**
- **%35** neska dira
- **%33** bekadun ikasleak dira
- **%23** atzerriko ikasleak dira, **60 herrialde** ezberdinetatik etorritakoak
- **29** ikasle **NORGINSA** programakoak
- **64** ikasle **ASINSA** programakoak
- **235 doktoregai**



PROGRAMA OROKORRA

Iberinsa programako ikasleek ikasketa zehatz bat jasoko dute. 12 ikasle frantziar eta 12 ikasle espainiarrez osatutako taldea izango da. Lehenengo urtean ikasle guztiak programa orokorra izango dute eta bigarrenek aurrera 4 espezialitate ezberdin izango dituzte aukeran.

- **Ingeniaritza Mekanikoa:** espezialitate honek, zientzia, teknologia eta sistemen ezagutzak dituzten ingeniariak prestatzen ditu. Prestakuntza honetan, produktu edo sistema mekanikoen garapenaren prozesuan, zera hartzen ditu kontuan, hauen bizitzako parametro guztiak: produktuaren zirriborrotik hasita, berau bukatu eta erreziklatu arte.
- **Automatika Elektronikoa:** espezialitate honen helburua ingeniariak ondorengoan trebatzea da: konpetentziak automatikan, seinalearen tratamenduan eta elektronika eta informatikan integratzeko; sistema konplexuen prozesuaren diseinua zuzentzeko; herramienta informatiko asoziatuak erabiliz, mando automatikoen azpi-sistema edo azpi-sistema elektronikoa eta mikroelektronikoak garatzeko.
- **Informatika eta Sareak:** espezialitate honen helburua logizialeen garapenaren prozesua eta sistema informatiko konplexuen diseinua dominatzea, komunikanteak direnak eta sareetan banatuak daudenak, segurtasun eta denbora errealean konpromisoak integratuz. Ingeniari hauek munduari irekita daude parez-pare, komunikatu eta berrikuntzak egiteko gai dira, enpresaren konplexutasun sozioekonomikoaren jakitun direlarik.
- **Ingeniaritza Kimikoa:** espezialitate honen helburua prozesuak diseinatu, funtzionatu, hobetu, kudeatu edo komertzializatzeko gaitasuna izango duten ingeniariak prestatzea da. Ondorengo egiteko gai izan behar dira: ingeniari kimikoen oinarriak ingurumenaren problematikaz ezartzeko gai izan behar dira, Eko- Industrien funtzionamendu ezin-hobea diseinatu eta ziurtatu ahal izateko, esparru desberdinetako prozesuak hobetzeko (Prozesuak eta ingurunea), uraren esparruan (uraren tratamenduko prozesuak), baita zainduagoak eta soilagoak diren prozesuak diseinatzeko berrikuntzak egiteko ere (Eko-prozesuak).

FRANTSES IKASTAROA - ATZERRIKO HIZKUNTZA

Frantsesa menperatzen ez duten Iberinsa ikasleek, Frantses ikastaro intentsiboa egiteko aukera izango dute ikasturtea hasi aurretik.

- **Ikastaroaren** gastua ikasle bakoitzak bere gain hartuko du.
- **Lehenengo urtean**, frantsesak ez diren Iberinsa ikasleek Frantses ikastaroa egingo dute, atzerriko lehen hizkuntza bezala, eta ingelesa, bigarren hizkuntza bezala.

ONARPEN MOTAK

- **Ikasketak Espainian burutu dituzten ikasleentzat:**

Matrikularen ordainketa Espainiako unibertsitatean bertan egingo da zuzenean. Onarpen prozesu eta matrikulari buruzko **informazio gehiago:**

www.uji.es_edo

www.mondragon.edu/en/international/international-student/iberinsa

- **“Baccalauréat” titulu frantsesa duten ikasleentzat:**

Matrikula “post-bac” portalaren bidez egingo da, eta honi dagozkion gastuak INSA-n bertan ordainduko dira. Onarpen prozesu eta matrikulari buruzko **informazio gehiago:**

www.insa-toulouse.fr/fr/admissions.html

TOULOUSE ETA CAMPUSEKO BIZITZA

Toulouse hiria Midi-Pyrénées eskualdean dago, Frantziako hegoaldean. “Hiri larrosa” bezala ezaguna, eraikuntzen ladirlo koloreengatik.

Toulousen **450.000 biztanle** baino gehiago bizi da eta Frantziako 4. metropolia da, Paris, Marseille eta Lyon-en ondoren. Garona ibaia eta Midi kanalak zeharkatzen dute hiria. Hiri erdigunean, jendez gainezka egoten diren kale estu asko dago taberna eta jatetxez beteta.

Eskia eta senderismoa gustoko dutenentzat, Pirineoak 2 orduetara daude. Espainiar muga Toulousetik ordu gutxira aurkitzen da eta **Mediterraneora**, autoz, ordu t'erdian heldu zaitezke.

Hiriko klima nahiko atsegina da, neguan batzbesteko 10 gradu eta udan batzbesteko 27 graduko tenperatura izanik.

INSA unibertsitatea campus zientifiko batean kokaturik dago, hiriko erdigunetik 5km-tara. Oso komunikazio ona dago metroz, baita bizikletaz ere. Eskola inguruetan zonalde berde ugari dago eta Canal du Midi inguratuta dago.

INSAk jateke eta taberna bana ditu; futbol eta errugby zelaiak ditu, tenisa praktikatu daitezke eta dantza areto eta gimnasioa ere baditu. INSAko ikasle giroa oso aktiboa da: Eskolako elkarte desberdinek aktibitate ezberdinak eskaintzen dituzte.



NAZIOARTEKO HARREMANEN ZUZENDARITZA

INSA Toulouseko nazioarteko harremanen zuzendaritzak, etorkizuneko Iberinsa ikasleak hartzeko baldintza ezinhobeak eskaintzen ditu:

- **Alojamendua campusean**
- **Administrazio tramiteekin laguntza** (matrikulazioa, kontu korrontea irekitzea...)
- **Ikasle berrien ongi etorria** Toulousera heltzen direnean eta ikasleek erreserbatuak duten alojamenduan instalatzen laguntzea, atzerriko ikasleen bulegoaren laguntzarekin.

Toulouseko Unibertsitateko PRESek antolatutako ekintza kulturalen barruan, Iberinsa ikasleek hiri eta eskualdearen hondare historiko eta kulturala ezagutzeko aukera izango dute. Beste herrialde bateko jendea ezagutu eta Toulouseko ikasleen artean integrazioa errazteko aukera izan daitezke.



Ikasle elkarteek proposatutako jarduerak/ekintzak

- Antzerkia
- Bela
- Marrazketa eta arte plastikoak
- Submarinismoa
- Argazkilaritza
- Arrauna
- Rol jokoak
- Ekitazioa
- Gizarte jokoak
- Tailandiako boxeoa
- Dantza
- Eskia
- Modelismoa
- Mendi itereak
- Musika
- Paintball
- Brikolajea

